

TXIKITTO

2012ko urtarrila

125



**Prestatu
SANBLASAK
gurekin!**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ekhi Belar, Koldo Mitxelena
eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa,
Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Kaixo lagunok! Opor ostean Olentzerok utzitako opari guztiekin ongi pasatzeko ordua iritsi da, honela hasi dugu urtea **La Salle Isasin**: Urtarrilaren 11n Xabier Lizaso pianojolea gurekin izan genuen ikastetxean eta guztiok disfrutatuhahal izan genuen bere trebetasunaz. 3.mailakoak Xakean jokatzeko ikasten ibili dira egun hauetan buruari eraginez eta 1.go eta 2. mailakoak zinemara joan ziren hilaren 17an IGEKAK ETA ZAPUAK filma ikustera. Gainera, 4. mailakoek 3 egun pasa zituzten LURRASKA-n nekazal mundua eta gure ohitura eta bazterrak ezagutzen.

Kaixo **Urkizu** eskolatik! Urtarrilak 20an, San Andres eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek Urkizu eskolako 5. eta 6. mailako ikasleak gonbidatu dituzte eurek antzetzutako antzerkia ikustera. Otsailaren 6tik 23ra 3. mailako ikasleek igeriketa izango dute Orbea kiroldegian.

Urtarrilaren 9an "gaur be euskaraz" eguna izan genuen, Gabon opor osteko lehen egun osoan zehar, euskarari bultzakada emanez, eta nagiak astinduz, asko gozatu genuen **Iturburun**, jolas eta ekintza desberdinak aurrera eramanez. Argazkian ikusten den bezala, ipuin kontalaria ere izan genuen.




Urte Berri on denoi **Arrateko Andra Mari** ikastetxetik! Atzean gelditu dira oporrak eta lanean murgilduta gaude jada. Ziur asko ez duzue zuek ere berri askorik, ezta?


Gure eskolan 3. eta 4. mailakoak Xake ikastaroa egiten ari dira. Oso gustura dabiz. Besteak poliki poliki irratseaioa prestatzen ari gara eskola barruan egiten ditugun emanaldietarako.

Hurrengo jai eta ospakizunak ere prestatzen hasi gara, laster izango ditugu-eta San Blas, Santa Ageda eta Aratosteak. Guk aurtien "Lehen Gizakia" izango dugu moztorroetarako gaia. Ea ze nolako irudimena dugun eskolako guztiok, ikasle eta irakasleekin batera guraso eta atezain izaten ditugu dena girotzen eta benetan ondo egiten dugu eskolako sarrera apaintzen. Nahi duzue ikustera etortzea? Atea zabalik izango duzue eta seguru aurtien ere merezi duela!






DENBORAPASAK




Jokin E. G. Maib

Desber dim tasumak aukitu

Bilel, Ander / Cassandra





-Zer esaten dio tomate batek beste bati?

-Oso gorri zaude.

IGOR SANZ

Gizon bat txori-denda batera sartu zen eta loro elebiduna eskatu zuen. Dendariak hanka bakoitzean soka bana zuen loro bat erakutsi zion.

-Ezkerreko sokatik tira eginez gero, euskeraz egingo dizu -azaldu zion saltzaileak- eta eskuinekotik tira eginez gero katalanez.

-Aizu, eta bietatik batera tira egiten badiot?

-Zorua halakoa! Lurrera joango naiz mokoaz aurrera! -erantzun zion loroak.

JULE GISASOLA



Zer behar da 5 pertsona ez bustitzeko aterkin batekin bakarrik?

Euria ez egitea.

Bazen bein neska bat hain potoloa, hain potoloa... ohetik altxatzen zenean alde bietatik egiten zuela.

Bazen behin herri bat hain pobre, hain pobrea... ostadarra txuri-beltzean irtetzen zela.

NAROA ASURMENDI

Zein da asteko egun gezurtiena?

Aste azkena.

GIHAN CARDO

-Zertan dute antza gizonak eta galtzerdiek?

-Hanka sartzeko bakarrik balio dutela.

Esaten dio ume batek aitari:

-Aizu aita, zuk emango al zenioke ostikoa ezer egin ez duen ume bati?

-Ez horixe!

-Orduan, esaten dizut ez ditudala etxekorako lanak egin.

IRUNE GONZALO

Galdetzen dio andereñoak Jaimitori:

-Nola esaten da 'puerta' euskaraz?

-Atea.

-Eta 'puerto'?

-Ateo!

ANDER SANCHEZ



- Txo, Josepo, nora zoaz eskailera batekin?
- Supermerkatura.
- Baina nola?
- Bai, mutil, prezioak oso altu daude-eta!

ELENA APERRIBAI

Gizon bat jai-aretoko atezainarengana hurbildu zen:

- Aizu, hemen al da nagi eta alferren lehia-keta?
- Bai, jauna, sartu barrura.
- Ez, ez, sar nazatela.

Gaixo egondako batek lagun bati:

- Ebakuntza egin zidaten eta medikuak belakia utzi zidan barruan.
- Jo, hori da hori! Eta min handia ematen dizu?
- Minik ez, baina egarria.... Demasekoa!



- Nola esaten da ispilua japonieraz?
- Hemenagoni.
- Eta paratxutista onena errusiarrez?
- Kataplof.

- Zergatik begiratzen dute fokek gora zirkoan?
- Goian fokoak daudelako.

- Aizu, zenbat geratzen zait Leiraino?
- Buztana bakarrik.



Villanuako San Silbestreak

Elene Gisasola gaztetxoak gustoa hartu dio herri horretako San Silbestre probari eta, bigarrenez jarraian, podiumera igo da. Bigarren postua eskuratu zuen iaz, Malen Amuategi eibartarraren atzetik, eta bigarrena izan da aurten ere. Eibartar biek euren mailatik gorakoei irabazi zieten eta, 44 nesken artean, lehenengoak izan ziren helmugara-zen. Lasterketa bikaina eginez, eta alebin mailakoak izanda ere, infantil mailakoei ere nagusitu zitzaien.

Horrelakoetan ez dute koparik jasotzen, baina izaten dituzte bestelako saririk: dominekin batera, maskarak edo bestelako opariekkin jaitsi izan dira podiumetik. Urte amaierako Gabon Zahar eguneko lasterketa horrek hiru kilometro eta erdiko distantzia izaten du eta adin guztietako seirehun bat lagun biltzen dira irteeran; batzuk, gainera,



koko-jantzita irtetzeko aukera aprobetxatzen dute eta show polita osatzen dute guztiek. Arratsaldeko 18.00etan hasten da proba eta izena emateko ez da ezer ordaindu behar. Hotz handia egiten du gehienetan eta gero herriko kiroldegian hartzen dute babes proba amaieran.

Aurten Elenek ez du Malenen laguntasunik izan, azken honen familiak ez baitu urtea Vi-



Eibarreraz egiten du



llanuan amaitu. Hala ere, gure herriko Naia Saezek, Mikel Amuategik, Urko eta Unai Arosatarrak... bertan egoteko aukera izan dute eta ezagutzen dute aipatutako San Silbestre hori. Parte hartzen duten guztiek proba iragartzen duen kamiseta jasotzen dute, talde antolatzaileak oparituta.

Eleneren eta Malenen familiakoek Eibarko Klub Deportiboarekin egindako irteera batean

ezagutu zuten Villanua; eta, geroztik, han etxea alokatu eta familia giroan pasatzeko aukera aprobetxatu dute. Ez da modu txarra urteari agur esateko, gainera fondoko eskia ere praktikatzen dute.

Villanua Aragoiko herri txiki bat da, Huescako probintzian dagoena, Pirinioen erdian. Urtean zehar 500 bat biztanle izaten ditu eta bertakoei ijitoak ere deitzen zaie, batez ere sasoi batean zaldiak hazi eta saltzen zituztelako Frantziarekin muga egiten duten lurraldeetan. Neguan, eski garaian batez ere, 6.000 biztanle izatera heltzen da Jakatik gertu dagoen herri hori.

Orain dela gutxi hasi dugun 2012. urte honen amaieran ere seguru Eibarko jendea izango dela aipatutako lasterketan. Elene, Malen... izango da beste eibartarrik podiu-mean?




Pareta dekoratzeko loreak

Etxean ditugun materialekin eskulanak egitea polita da, are gehiago bota beharrean zerbait ederra egiteko erabiltzen baditugu. Oraingoan, etxea dekoratuko dugu!




MATERIALA:

- Kartoizko komuneko papera.
- Guraizeak.
- Kola itsasgarria.
- Grapagailua.
- Margoak.
- Pintzelak.
- Brillantina.
- Arropa eskegitzeko pintzak.



NOLA EGIN:

- 1-Kartoizko hodia zapaldu.
- 2-Hodia bost zati berdinetan moztu (ez dio axola guztiz berdinak izatea).
- 3-Azalera lauean kokatu zatitxoak loreen diseinua egiteko. Zure gustura kolka itzazu.
- 4-Euren artean ukitzen diren tokietan zatiak itsatsi eta pintzarekin eutsi itzazu lehortzen diren bitartean. Grapagailua erabili dezakezu zatiak itsasteko, baina ume txikienekin hobe da kola erabiltzea.
- 5-Behin zatiak itsatsita daudenean, margoak eta brillantina erabili loreak zure gustura margotzeko. Brillantina margo freskoaren gainean ipini dezakezu, horrela ez duzulako kola itsasgarria erabili behar.
- 6-Nahi beste lore gehitu diezaiokezu diseinuari kartoi berriak itsatsiz.



SUGEAREN LARRUA

Oihanean Nagda izeneko neska eder bat bizi zen. Halakorik! Mutil guztiak ibiltzen ziren haren atzetik, baina berak Kuruti maite zuen. Kuruti ehiztaririk trebeena zen. Behin suge pozointsu batek Kurutiri kozka egin zion eta, egun batzu pasata, mutila hil egin zen. Ordurako Nagda haurdun zegoen. Hilabete batzuren buruan suge batez erditu zen eta sugea nagusitu zenean, jakina, inork ez zuen berarekin ezkondu nahi.

Herriko azitia arazoa konpontzen saiatu zen. Sugearen bikotekidea Ida izeneko neska bat izan zitekeela pentsatu zuen. Aztiak basoko etxetxo bat oparitu zion Idari, baldintza bakar batekin: etxean edozein bisitari onartzea.

Goiz batean Idak suge bat aurkitu zuen atarian. Gezurra badirudi ere elkarren lagun handiak egin ziren. Zenbat berriketaldi egin ote zuten!


Idak gutxien uste zuenean, sugeak ospa egin zuen. Eta handik gutxira mutil dotore bat agertu zen. Idak hura ere onartu egin zuen etxean.

Behin batean Ida mutilarekin hizketan zegoela, suge larru bat ikusi zuen beheko suaren ondoan. Mutila ohartu barik, Idak sutara jaurti zuen larrua eta kiskali bezain laster mutilak hau esan zuen:

-Orain arte erdi gizon erdi suge izan naiz baina hemendik aurrera, zuri esker, gizon osoa izango naiz.

Mutilak hartu zuen poza! Itxura aldaketari esker bazuen norekin ezkondu. Idarekin, jakina. Ze bikote ederra! Herriko neskak, ordea, oso penatuta geratu ziren, sugeari muzin egiteagatik mutilik gabe geratu zirelako.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



Gure herrian gozo famatu bat baldin badago, hori San Blasa da. Hurbil daukagu San Blas eguna, beraz, zer hobe San Blasa egiten ospatzea baino?

OSAGAIAK:

- Libra bat irin.
- Libra erdi azukre.
- 4 arrautza (zuringo bat aparte laga).
- Royal koilarakadatxo bat.
- 50 gr. gurin
- Anis esentzia koilarakadatxo bi.
- 100 gr. glas-azukre.

PAUSOAK:

1-Irina mahaian ipini eta erdian zulo txo bat egin (sumendi baten antzera), eta bertan bota azukrea, arrautzak, Royala eta anisaren esentzia.

2-Masa prest dagoenean, gurina bota eta ondo oratu behar da.

3-Aurreko pausoa behin ondo eginda dagoenean, mahaiaren gainean zabaldu behar da forma ondo emateko.

4-Labean sartu (ez dago denbora konkreturik, zaindu egin behar delarik ondo eginda noiz dagoen jakiteko).


5-San Blasak goiko aldean duen zuria egiteko, ontzi batean 6 ur koilarakada eta 15 azukre koilarakada ipini sutan. Urtzen denean, aurretik albo batean lagatako zuringoa (aurretik irabiatuta egon behar dena) bota ontzira. Horrela, hotzitu arte (onena, ontzia ur hotzetan edukitzea; ontzi baten barruan sartzea, baino-maria moduan, baina ur hotzarekin).

6-Opila bero egon behar da, eta labeetik atera ahala egindako zuria gaintik eman.



SAN BLASA

INTERNETEN...



txiki.net

Bere leloak argi uzten du: euskal umoon z(d)ibertxokoa. Argi dago, beraz, orde-nagailuaren aurrean ondo pasatzea nahi baduzu, hau da zure webgunea. Hainbat atal ditu txokoak. Batetik, ipuinak irakurtzeko atala azaltzen da, baina irakurtzeaz gain, zu zeuk ere kontatu ditzakezu zuk asmatutako istorioak. Jo-kuen atalean, webgunean bertan jolasteko aukera eskaintzen da. Musika entzun eta abestea gustatzen bazaizu, kantak atala daukazu. Eta guneak atalean, hiz-kuntza, irakurtzeko gai, museo eta web kamerak eskaintzen dituzten webguneen estekak ageri dira.

euskaludalekuak.org

Neguan gaude eta hainbat hilabete geratzen dira uda iristeko, baina batek baino gehiagok udan zer egingo duen dauka jada buruan. Gaztetxoendako aukera zo-ragarria izaten da udalekuetara joatea, eta izena-emateko epea abian da jada-nik. Webgune honetan euskal udalekuek eskaintzen dituzten aukera, baldintza, ezaugarri eta bestelakoak agertzen dira eta, noski, izena eman ahal izateko au-kerak ere. Eta oraindik udalekuetan ea ondo pasatuko duzun zalantzak badituzu, webguneko argazkiak ikusi eta zalantza hori argituko duzu!



ARIES

Aratosteak iristear daude eta oraindik ez duzu erabaki nola mozarrotuko zaren. Galdetu etxean, eurek ideia onak emango dizkizute.

TAURUS

Oso ondo pasatzen duzu barrabaskeriak egiten, baina horrek bere arriskua ere badauka, harrapatzen zaituztenean batez ere. Azkar-azkarra izan beharko zara.

GEMINIS

Lagunek opari ederra egingo dizute, espero ez zenuena, eta bizitza osoan gogoratuko duzu detaile hori.

CANCER

Urtea modu eskasean hasi duzu, baina datorren astetik aurrera dena hobera joango da eta zaila izango da zure aurpegitik irrifarrea kentzea.

LEO

Dinamika ona hartu duzu eskolan. Langile za-biltza, ondo portatzen zara... irakasleak pozik dituzu!

VIRGO

Maitte duzun pertsona begi bereziekin begira-tzen diozula konturatuko da. Kontua da, berak ere zerbait berezia sentitzen duela.

LIBRA

Mezu berezi bat jasoko duzu eskolan datozen egunotan. Ondo irakurri eta ondo gorde ezazu, etorkizunean lagungarria egingo zaizu-eta.

SCORPIUS

Egunak gora eta behera pasatzen dituzu korrika batean, gelditu barik. Normala gero gava hel-tzean ohean lo seko gelditzea. Hartu atseden!

SAGITARIUS

Osasun arazoak izango dituzu datorren asteko hasieran eta agian etxean geratu beharko zara pare bat egunez. Ez aspertzeko, hainbat liburu irakurri zenitzake.

CAPRICORNIUS

Erritmo karibearra ematen diozu zure bizitzari. Dena lasai hartzen duzu. Ba bizitasuna eskatzen dizun gauza bat egin beharko duzu laister!

ACUARIUS

Esfortzu handiek, gero, emaitza onak dakarkite. Ederki ikusiko duzu hori; txarto pasatako mo-mentuek merezi izan dute...

PISCIS

Akatsak zuzentzea, gauzak ondo ikasteko modu egokia izan daiteke. Txarto ikasiz gero, ez du ezertarako balio.

Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zinera juateko ohitturia dakazu? Zein da zure filme gogokuena?

MARTA RODRIGUEZ, 10 URTE

Batzuetan Coliseora juaten naiz. Walt Disney-ren pelikulak gustatzen jataz, baiña batez be aittari gustatzen jakozenak, barregarriak diranak.

ANDER LUENGO, 8 URTE

Eibarren, Bibon eta Santanderren juateko ohitturia dakat. Azkenengua, "Happy Feet II" izan zan. Gehixen gustau jatana, halanda be, Tintin izan da.

ENEKO VICUÑA, 9 URTE

Ohitturia dakat zinera juateko, Eibarren edo Bilbon. 'Alvin y las ardillas' gustatzen jata gehixen, oso dibertigarrixa da.

LOURDEZ GOMEZ, 42 URTE

Zumarragakua naiz eta zinera juatia zoragarrixa zan guretako. Lau zinema zeguazen eta giro ezberdiña zeguan. "Loti Ederra" gustatzen jatala gogoratzen dot.

LAURA PEREZ, 34 URTE

Egixa esan, nahiz eta zinia gustatzen jatan, ez nintzan asko juaten, nagusittan gehixago. Flipper pelikulia gogoratzen dot gustokuen moduan.

ALBERTO VICUÑA, 42 URTE

Txikitan asko juaten nintzan zinera; izan be, ez zeguan ixa beste gauzarik! Pelikula barregarriak gustatzen jatazen, Bud Spencer eta halakuenak.





XIA TENZINEN BIDAIA MIRESGARRIA

Xia Tenzinek, munduko mendi altuetan bizi den munduko gizonik altuenak, ezin du itsasoa ukisu eta ez du aitaren berririk. Horregatik bidaian abiatuko da, eta bidean ekaitz beldurgarriak jasango ditu, eta gobernadore baten maltzurkeria, baina dantzari xarmangarri bat ere ezagutuko du, eta izotz azpiko misterioa... Hauxe duzu Tibeteko mendietatik itsasora arteko haren bidaiaren gorabeheratsua, arriskutsua eta, batez ere, miresgarria.



PLATONEN URMAELA - LAPURTUTAKO GILTZAREN BILA

Watsonek, Crickek eta Rosak laguntza behar dute. Platon izeneko txakurrak Gaia mundu bereziaren atarira eraman ditu hiru lagunak, lapurreta izugarri bat argitu dezaten. Izan ere, Lurraren eta Gaia-aren arteko atea zabaltzen duen giltza lapurtu egin dute. Zazpi egun dituzte giltza aurkitzeko, aurkitu ezean, mundu bien arteko pasabidea betiko itxiko da, eta ezingo dira etxera itzuli.



HILDAKOEI ESKER ETA HAIEN ERRUZ

Norbait hil behar duzunean, begirada ezkutatu egiten da. Gai zara? Galderak. Zeure begiak galbidean uzten bazaizu, atera begiak. Nor da zure ahotsa? Nork behar ditu zure berbak? Mingainean dituzu. Zure mingainak galbidean jartzen bazaitu, atera mingaina. Lehertu eztarrria eta hartu berbak. Koagulu ustelen artean, negar-jarioak eta irribarreen errautsa.



ORTZAK GALTZEN ZITUEN KANTARIA

Maitasun berbak ederrak omen dira. Eta hala izango dira. Baina maitasun berbek ondorio lazgarriak dituzte zenbaitetan. Ondo daki hori Only Galarraga kantari ospetsuak, hortzak galtzen baititu maitasun baladak kantatzean. Eta ondo dakite lehoiak, kaimanak eta mortsak... Only Galarragari hortz bat ematen dioten guztiak. Haginlaria (haginka egiten diona inoren poltsikoari haginak konpontzeko aitzakian da haginlaria) pozik dagoen bakarra.



ESAN, AMA, NORK EGITEN DITU UMEAK?









Behin batez hauxe galdetu zion Tutu sagutxoak amari: "Esan, ama, nork egiten ditu umeak?". Sagu-eskolan maisuak azalduko die ikasleei landareak, animaliak eta gizon-emakumeak nola ugaltzen diren, baina ikasgairik garrantzikoena Didi Satorrekin ikasiko du Tutuk, aurreneko aldiz musukatzen duenean.



VOLTAIRE KALEKO ABENTURAK

Ez dago mago handirik hil behar. Annetek eta Fabricek egiazko misterioari aurre egin beharko diote: Offenbach magoa, zalantzarik gabe eskujokarien erregea dena, hiltzeko arriskuan dago. Munduko mago handien bileran eraso diote. Neba-arreba bi ikerketari egiteko prest daude: daukaten aztarna bakarra "frakez jantzitako gizon bat" da, krimenaren tokian ikusi dutena. Hura ote da erruduna?

SUPERMAN



Julen Maguregi